



## NOAINGO PARKEA

# Zentzumenekin jolasean



Garazi Zabaleta  
@tirikittrann

Hegazkinentzako zementuzko pista luzeaz gain, industria gune zabala ere badu Noainek. Duela hamar urte, ordea, zementuzko eta txapazko inguru horretan herriari aire freskoa ekarriko zion gune berdea hasi zen hazten: Zentzumenekin Parkea.

### Zentzumen bakoitzak bere gunea

Bost gunetan daude banatuta Zentzumenekin Parkeko 25.000 metro koadroak. Gune bakoitza zentzumen bati dago lotuta: Dastamenari, baratzea; usaimenari, lorategi mediterraneo; ukimenari, lorategi frantsesa; ikusmenari, lorategi ingelesa; eta entzumenari, lorategi japoniarra, bere erreka eta ur laster soinuarekin. 30 zuhaitz espezie, 95 zuhaika espezie eta 70 lore espezie baino gehiago daude parkean, urteko sasoiaren arabera paisaia aldaketa handiak eragiten dituztenak. Gune berde hori, noski, bizitoki ezin hobea da basoko animalia ugarentzat.

### Udalaren hautua

Udaleko langile lorezainen babesarekin, Mikel Baztan izan zen Zentzumenekin Parkearen ideia bultzatzaile nagusia. Egitasmoa ez zen posible izan, ordea, Noaingo Udalak hartutako jarrerari esker ez balitz. Parkeko lorategietan eta herriko gune berde guztietan lorezaintzako teknika ekologikoak darabiltzate udal langileek, eta esparru horretan aitzindari dira. Zentzumenekin Parkeko sarreraren dagoen Lorenea eraikina ere Udalaren apustu horren beste adibide bat da: lasto fardoekin eraikia dago. Bertan Baratzezaintza eta Lorezaintza Ekologikoaren Interpretazio Zentroa dago, eta urte osoan eskola askotako haur eta gazteak hartzen ditu.

Estatuko nahiz nazioarteko hainbat sari irabazi ditu azken urteetan Noaingo Zentzumenekin Parkeak. Ordea, argi dago parkearekin irabazten atera diren lehenak herritarrak direla. Noaintzat "birika berdea" baita parkea. ■



## ALTZAN PORRU

### Irribarrearen baratzea

Marraskilariak:

Asisko, Unai Iturriaga,  
"mattin" Martiarena, Ainar Azpiazu,  
Antton Olariaga, Zaldieroa,  
Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



## BIZI BARATZEA

Gure kultura

### iraultzen ari den liburua

Bloga: [www.argia.eus/bizi-baratzea](http://www.argia.eus/bizi-baratzea)  
@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuaren eskaerak:

☎ 943 371 545  
[www.argia.eus/denda](http://www.argia.eus/denda)

## AURKEZPEN HITZALDIAK

### Irailak 23: Munitibar

Lekua eta ordua zehazteke.

### Irailak 28: Elgoibar

Izarra elkarteak antolatuta.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

[sustapena@argia.eus](mailto:sustapena@argia.eus) · ☎ 943 371 545